


udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

Aiaraldeko Euskaingintza Kontseilua; elkar-lana, nor izateko.

EGILEA:

Aiaraldeko Euskaingintza Kontseilua: Joseba Llano Hernaiz eta Gartzen Garaio Atxurra.

DATA:

2019/05/08



AURKIBIDEA

1. Sorrera.....	3.
2. Lau urtetako ibilbidea.....	7.
3. Ahulgunean eta aukerak.....	9.
4. Azken hitza.....	12.



1. Sorrera

1.1. Zergatik

Aiaraldeko Euskalgintza kontseilua 2015 urtean sortu zen, eskualdeko euskaltzale batzuen ekimenez eta euskalgintzaren babespean. Euskararen normalizazioan lan egiteko prest zeuden entitate eta norbanakoen bilgune bezala sortu bazen ere, batez ere entitate eta elkarten bilgunea izan da 4 urte hauetan (norbanakoak bigarren maila batean geratu direlarik). Gaur da eguna Kontseiluko kide direla eskualdeko 42 entitate; sindikatuak, ikastetxeak, gazte elkarteak, kirol taldeak, kultur esparrukoak, euskara elkarteak, hedabideak...

Talde sustatzaileak Kontseilua helburu hauei erantzuteko sortzea erabaki zuen:

- Euskalgintzan lanean ziharduen jendea eta ekimenen **atomizazio eta disgregazioari** aurre egin. Hizkuntzaren normalizazioan bakarka eta nor bere bidetik egiten zuen lan jardun horiek bildu, gogoetak partekatu eta norabide berdinean ekiteko lantresna izateko...
- **Sinergiak bilatu**, hausnarketak egin, **baliabideak eraginkortu** eta batez ere Aiaraldea eskualdean euskararen erabateko normalizazioa erdiesteke **estrategiak eta lan ildoak zehazteko** gunea sortzeko.
- Gaur egun euskararen normalizazio lanean zuzenean parte hartzen ez duten eragileak zeregin honetan inplikatzeko tresna izateko; eragile hauei lan hau garatzeko baliabideak eta laguntza eskainiz euskararen erabilera garatzeko beharrezkoa den testuinguru egokiak sortzeko. **Euskalgintzaren transbertsalitatea** lantzeko gure jendartea osatzen duten eragileen artean, euskararen aldeko lana beraien agendatan sartuz.
- Eskualde mailan egituratzen den eragile sozial eta politikoen aurrean **erreferentzialtasuna** hartzeko euskararen normalizazio prozesuan.
- **Sare konplexua osatzen duten Udalek, Aldundiek edo Koadrila bezalako erakunde publikoekin elkar-lana** sustatu ahal izateko gune egokia sortzeko, estrategiak adostu eta bide partekatutak ahalbidetzeko.

1.2.- NON:

Euskalgintza Kontseilua Aiaraldea eskualdean sortu zen, Araba eta Bizkaia artean banatzen den lurralde ezezagun horretan, eta **bederatzi udalerriek osatutako eremu geografikoan**: Audio, Amurrio, Urduña, Aiara, Orozko, Artzi-niega, Okondo, Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldo.

Bertako biztanleentzat errealitate soziologiko naturala osatzen duen eremu geografiko honek baditu zenbait ezaugarri "berezi", ohiko udalerrri baten errealitatearekin alderatuta, ezberdin egiten dutenak kontseiluaren funtzionamendua:



- **Geografikoki eremu oso zabala** da, Urduñatik Arrankudiagaraino eta Artziniegatik Orozkoraino luzatzen dena. Bertan 45.000 biztanle inguru bizi dira. Gainera, izaera eta ezaugarri ezberdineko herriak daude, txikiak eta handiak, landa eremukoak eta urbanoagoak...
- **Udalerriak bi errealitate politikoetan banatuta** daude: **Araban** Laudio, Amurrio, Artziniega, Aiara eta Okondo eta **Bizkaian** Orozko, Urduña, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zollo. Nahiz eta herri gehienak Aiarako Koadrilakoak izan, **ez dago egitura politikorik denak hartzen dituenik**, erakunde publikoen elkarlana konplexuago eginez.
- Eskualde osoa egituratzen duen erakundearen faltan, **herri ekimenek sortu ditu eskualde osorako iniziatibak**, errealitate soziologiko argi horri erantzuteko: Aiaraldea euskarazko Komunikazio taldea izan zen aitzindari horretan, eta sortutako erreferentzia horren ondorioz hainbat dira -banaketa politiko-administratiboa gainditu, eta- eskualdearen luze-zabalean egituratzen hasi diren herri plataforma eta elkarteak.
- **Eskualdeko errealitate politikoa oso anitza da**, tamaina eta funtzionamendu ezberdineko erakunde publikoak, kolore desberdineko ordezkari politikoak eta erakunde publikoen interlokutore ugari. Egoera honek esfortzu berezia eskatzen dio kontseiluari bere lana aurrera eramateko.
- **Aniztasuna** zango litzateke Aiaraldeko Euskaingintza Kontseilua zabaltzen den eskualde honen ezaugarririk garrantzitsuena.

1.3.- NORK:

Entitate edo elkarte ezberdinek osatzen dugu kontseilua: euskara elkarteak, ikastetxeak, sindikatuak, gazte taldeak, kirol elkarteak, dantza taldeak, kultur Elkarteak... guztira **eskualdeko 42 eragilek** osatzen dute Kontseilua, eta atea zabalik daude etengabe entitate gehiagoren kidetza erdiesteko.

Parte hartzeko modu eta eritmo ezberdinak ahalbideratu ahal izateko bi dira kontseiluan parte hartzeko profilak, entitate bakoitzak hartu nahi duen konpromiso mailari hertsiki lotuak: **KIDEAK eta BAZKIDEAK**.

Era berean, Kontseiluko kide zein bazkide izan daitezke NORBANAKOAK zein ENTITATEAK, izan azken hauek kultur taldeak, enpresak, hezkuntza zentroak...

KIDEAK

- Euskararen normalizazioan ekarpen bat egiten duten edo egin nahi duten eragileak izango dira kideak.
- Kontseiluaren izaera, helburu eta filosofiarekin bat egiten duten eragile eta norbanakoak izango dira Kontseiluko kideak.
- Erabakimena duten Kontseiluko egituretan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute kideek, urtean hirutan bilduko den KONTSEILUAREN egituran zabalean hain zuzen ere.
- Kontseiluko Kideek ez diote elkarteari ekarpen ekonomikorik egin behar izango.
- Kontseiluko kideek bazkideen erabakimen berdina izango dute.



- Kontseiluko erabakiak ez dira lotesleak izango kideentzat. Hala ere kideek nor bere entitatean erabaki eta hausnarketa horien berri emateko konpromisoa hartuko dute.

BAZKIDEAK:

- Euskararen normalizazioa entitatearen egiteko nagusi duten eragileak izango dira bazkideak.
- Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluaren helburu, izaera eta filosofiaren garapenean konpromiso aktibo bat hartuko dute. Egitura ezberdinetan aktiboki parte hartuko dute, eta Kontseiluak berak dituen beharrei erantzungo diete.
- Kontseiluko bazkideek ekarpen ekonomiko bat egingo diote urtero egiturari, nor bere ahalaren arabera kopuruan.
- Kontseiluko bazkideek parte-hartzaileek baino ekarpen handiagoa egingo duten arren, erabakimen berdina izango dute; eragile bat boto bat irizpidea jarraituta.
- Kontseiluak hartzen dituen erabakiak lotesleak izango dira bazkideentzat.

1.4.- NOLA:

Juridikoki ere izaera zehatz bat izatea ezinbestekoa da. Hala instituzio publikoekin batera garatuko diren lanetarako (hitzarmenak, diru-laguntza eskariak, interlokuzioa...), nola eguneroko funtzionamendua garatu ahal izateko ere.

Zentzu horretan, eta Kontseiluaren izaera zabal eta parte-hartzailea bermatzeko, IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEA osatu da: **AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA ELKARTEA** hain zuzen ere.

Hauek dira Kontseiluak bere jardunean garatzen dituen ekimen motak eta lan-esparruak:

- Hausnarketak
- Sentsibilizazioa
- Bat-egite dinamikak: aisialdia, kultura...
- Interpelazioa
- Komunikabideak
- Koordinazio lanak
- Baliabideak sortu eta partekatu
- Estrategiak

Edozein elkarte bezala antolatzen da Kontseilua, bere funtzionamendu organoen bitartez:

- **Euskalgintzaren kontseilu zabala:** Kontseiluaren erabakigune organoa da. Urtero hiru aldiz batzartuko da. Erabaki estrategikoak eta garrantzi handikoak hausnartu eta hartzeko gunea da, bai eta eguneroko lanean lagungarri zaizkigun baliabideak zeintzuk eta nolakoak izan behar diren zehaztekoa ere.
- **Talde eragilea:** Kontseiluak zehazten dituen lanak eta ildoak garatzeko funtzioa du. Hiru astean behin batzartzen da, eta Kontseiluko bazkideak diren entitateen ordezkariak parte hartzen dute bertan. Bazkideez gainera, talde eragilea parte hartu nahi duen edonori irekita egongo da. Kontseilu zabalak zehaztutako



plangintzak eta lanak egunerokotasunean kudeatzen ditu talde eragileak. Era berean, Kontseiluko kideen parte hartzea erraztuko eta garatuko du. Kontseiluko langilearen eguneroko lana ere dinamizatzen du.

- **Kontseiluko Langilea:** Kontseiluaren eguneroko funtzionamendua eta lana kudeatzeko pertsona bat kontratatuta dauka, lanaldi erdiz. Plangintzak eta hamarnaka kide eta bazkideren koordinazioa eta jarraipena egiteaz arduratzen da, proiektuari behar duen egonkortasuna emanaz. Langileak talde eragilea izango du bidelagun.
- **Talde espezifikoak:** Nahiz eta oraindik oso aktiborik ez egon, aurreikusten genuen Kontseiluan adostutako sektorekako taldeak sortuko zirela behar eta ahalaren arabera; hezkuntza, merkataritza, kultura, instituzioak, kirola... Plangintzaren eta ildo estrategikoen arabera antolatuko dira talde hauek eta beharren arabera maiztasunez bilduko direla.

Kontseiluaren dinamika sustengatzeko eta garatzeko ezinbestekoa da **baliabide ekonomikoak** eskuratzea; izan langilea kontratatuzko, izan kanpainak garatzeko, euskarri komunikatiiboak inprimatzeko... Zentzu horretan Kontseiluak funts ekonomiko bat izatea ezinbestekoa da.

Kontseiluaren funtzionamendu osasuntsurako finantzaketa pribatu eta publiko orekatua izatea du xede; hau da, gutxienez **%50 pribatua, eta beste %50a diru-publikoa**.

DIRU-EKARPEN PUBLIKOAK:

- **HITZARMENAK:** Aiaraldea osatzen duten 9 udalerrietako udalekin eta Aiarako Koadrilarekin urtez-urte berri-tuko den hitzarmen ekonomikoa sinatzen da, zeinetan Udalek biztanle kopuruaren arabera diru ekarpen bat egiten dioten Kontseiluari.
- **DIRU-LAGUNTZAK:** Ekimen eta dinamika zehatzetarako eskatuko dira diru-laguntzak, ez ohiko funtzionamendua sustengatzeko.

DIRU EKARPEN PRIBATUA:

- **BAZKIDEEN EKARPEN BOLUNTARIOAK:** Parte-hartzaileen atalean azaldu bezala, Kontseiluko kideek ez diote Kontseiluari ekarpen ekonomikorik egin behar izango, bai aldiz bazkide izatea erabakitzen dutenek. Halarik ere, bazkideek borondatez egingo dute ekarpen ekonomiko hau, eta bazkide bakoitzak zehaztuko du zenbatekoa den urteko ekarpena.
- **DIRU ITURRI PROPIOAK:** Kontseiluak bere finantzaketa bideak bilatu beharko ditu, lan karga eta konpromiso txikiak eskatzen dituzten horiek hobetsiz.

1.5.- NOREKIN:

Euskararen normalizazioan lan egiten duten edo lan egin nahi duten entitate eta norbanakoak askotarikoak dira, eta eragin eremu oso ezberdinetakoak (hezkuntza, ekonomia, instituzioak, aisialdia, kultura...). Aniztasun guzti horri bide eman nahi dio EUSKALGINTZAREN KONTSEILUAK, eta hori dela eta parte hartzeko moduak ere errealitate horietara egokitzen ditu ahalik eta eragile gehienen parte hartzea bermatzeko, zein nahi konpromiso mailari bide emanaz.



Entitateen kasuan kide eta bazkideen ordezkaritza formala gauzatzeko Kontseiluko kide eta bazkideek urtero euren ordezkaria zein den izendatzen dute. Ordezkaritza honen berri urteko lehen kontseiluan emango da.

Instituzioekin elkarlanak pisu handia hartzen du Kontseiluaren eguneroko lanean, eta Eskualdeko instituzioen parte hartzea Kontseiluan euskara arloetara mugatzen da -euskara teknikarietara-, politikarien parte hartzea (ordezkaritza mailan behintzat) ekidinez. Horrela, **udaletako euskara arloak Kontseiluaren kide izango dira, euskara teknikarien parte hartzea ahalbidetuz** eta herrigintzako zein instituzioetako dinamiketan sinergiak bilatuz.

1.6.- ZERTARAKO:

Egituraketa konplexua duen eskualde batean euskararen aldeko dinamikak bultzatu, jendartean testuinguru egokiak sortuz **euskararen erabileran zentzu positiboan eragiteko**. Honetarako Kontseilua tresna eraginkorra dela uste dugu, prozesu honetan lan egiten dugun eragileen artean eman beharreko **elkarlan anizkuna** eman ahal izateko: euskalgintza, herri eragileak eta Erakunde Publikoak.

Zentzu honetan, **ELKARLANA** oztopoa baino, **ERREGAI** bezala ulertu behar dugu euskararen normalkuntza prozesuan aurrerapausoak ematen jarraitzeko.

Euskalgintzaren Sistema osatzen dugun guztiok elikatu behar gaitu elkarlan honek, nor bere lekuan eta funtzioan. Aro berri honetan euskalgintzak behar duen transbertsalitatea indartuz, eta sistema osoak hartzen duen indarra, osagai bakoitzaren indarraren batura baino handiagoa dela jakinda.

2. Lau urteko ibilbidea

Kontseiluaren izaera eta ezaugarritzean azaldu bezala, lau urte hauetan, eskualdeko erreferentzia eta sarea sortzeaz gainera, sustapen eta akuilu lana izan da nagusi gure egitekoan.

Motzean bada ere, hauek dira ibilbide labur honetan Kontseiluak garatu dituen jarduera nabarmenenak:

- **KONTSEILUAREN ERAKETA ETA KIDETZEA [2015]:** Talde sustatzailea Kontseiluaren oinarriak eta ezaugarriak zehazten hasi zen 2015ean. 2016 urteko lehen hilabeteetan aldiz, eskualdeko eragile sozialekin interlokuzio dinamikari heldu zion, egitasmoa aurkeztu eta Kontseiluko kide zein bazkide bihurtzeko proposamena luzatuz.
- **INSTITUZIOEKIN ELKARLAN HITZARMENA [2016]:** Kontseilua eratuta, bigarren egiteko nagusia eskualdeko 10 instituzio publikoekiko elkarlan espazioa artikulatzeari ekin zion Kontseiluak. Bederatzi udaletxeekin eta Aiarako Koadrilarekin hitzarmena izenpetu zuen, aniztasun politiko handiarekin. Gaur egun oraindik ere indarrean dagoen elkarlan konpromisoak eta baliabideak ezarri ziren, eta finantzaketa publikoa izenpetu ere.



- **ESKUALDEKO KIROL ESPARRUAREN HIZKUNTZ-DIAGNOSTIKOA [2016]:** Aisialdiaren espazioan, eta gazte segmentua aintzat hartuta, kirola, euskararen sustapenerako lehentasunezko arloa zela ondorioztatu zuen Kontseiluak. Euskarak kirol elkarte eta klubetan bizi zuen errealitatea aztertzeko diagnostiko zabala egin zuen; 5384 kirolari biltzen zituzten 45 kirol elkarterekin elkarrizketak egin eta errealitate horren argazkia osatu zuen. Era berean, eta diagnostikora ez mugatzeko xedez, kirol elkarteei hizkuntzarekiko konpromiso berriak (txiki, ertain zein handiak) proposatu zitzaizkien harreman bira horietan.
- **EUSKARAREN EGUN BATERATUA [2016]:** Eskualdean eta Kontseiluaren ibilbidean mugarrria izan zen kanpaina inongo zalantzarik gabe. “Aiaraldea euskaldun, konpromisoak eta maitasuna” lelopean, hamarkadetan lehen aldiz, euskararen eguna modu bateratu batean aldarrikatuzen Aiaraldean. Eskualde luze-zabaleko euskaltzaleak hizkuntzarekiko maitasunetik harago ekarri, eta maitasun hori konpromiso zehatzetan islatzeko gonbidapena zabaldu zuen Kontseiluak lau-haizetara. Erantzuna ere tamainakoa izan zen, milaka konpromiso eta milaka lagun bildu baitziren Amurrioko kaleetan euskararen egun bateratu horretan.
- **GOGOETA JARDUNALDIAK [2017]:** Intuizioz zein borondate onez mahai-gaineratzen diren proposamen eta jardueraz gainera, etorkizuna ahal bezain fin marrazteko, “Euskararen etorkizuna Aiaraldean” hausnarketak eta gogoetarako jardunaldiak antolatu zituen Kontseiluan Amurrioko Refor enpresaldean. Hamabi hizlari eta esperientzietatik edan, eta gure eskualdeak euskararen normalizazioan aurrera egiteko behar dituen gogoeta zumitzak bildu zituen Kontseiluak, aurrerago garatuko zuen gogoeta estrategikoaren hazia izan ziren gogoeta jardunaldi hauek.
- **EUSKARAREN AGENDA [2017]:** Euskaraz bizitzeko baliabide komunak sorkuntzan eta garapenean aurrera egiteko, 2017 urtean hasi zen Kontseilua eskualdeko euskararen agenda antolatu, argitaratu eta zabaldu. Oraindik ere indarrean den lanabes honetan eskualdean euskaraz garatzen diren jarduerak jasotzen dira, euskaradunen esku jarri kanal digitalak eta presentzialak erabilia horretarako..
- **AIARALDEA AHOBIZI ETA BELARRIPREST [2017]:** 2016 urteko euskararen egun bateratuaren ondoren, pausu bat aurrera egin, eta Euskal Herriko hainbat herri eta auzoetan garatutako esperientziak oinarri hartuta, euskaldunen aktibazioarako dinamika antolatu zuen Kontseiluak. Lasarte-Oria izan zen erreferente nagusi, gerora Euskaraldiaren dinamizazio esker ezagun egin diren ahobizi eta belarriprest figuretan aktibatzen ziren Aiaraldeko herritarrek. 30 egunez, astebeteko txandetan ia 5.000 herritarrek parte hartu zuten dinamika honetan.
- **EUSKARAREN GOGOETA ESTRATEGIKOA AIARALDEAN [2018]:** Kontseilua sortu zenetik 3 urteko ibilbidea eginda, euskararen normalizazioak Aiaraldean behar duen plan estrategiko partekatua osatzeko lehen gogoeta saioak antolatu zituen. Gogoeta ildo estrategikoetan euskalgintzako eragileek, bestelako subjektu sozialek eta instituzio publikoek eurek partekatuko duten epe luzerako helburu eta ekintza plana marraztea izan du xede gogoeta honek. Oraindik ere itxi eta partekatu gabe dagoen arren, hau izango da dudarik gabe hizkuntzaren normalizazioan inbertitzen diren baliabideak norabide egokian jartzeko lantresna



nagusia. Norbere esparrutik harago joan eta urteetarako balioko duen plan estrategiko partekatua osatzea, elkarlana oinarrian izango duena.

- **EUSKARALDIA [2018]:** Aurreko urteko dinamikari jarraipena emanez, eta oinarri sendo bat ezarrita, Aiaral-dean ere instituzio publikoekin elkarlanean antolatu zuen Kontseiluak euskaraldia. Ahobizi eta belarriprest dinamikari jarraipena eman eta era berean, dinamikaren bukaera modu bateratuan ospatu zen Laudioko kaleetan, egun osoko aldarrikapen jai bat antolatuta.
- **“EZ WE CAN’T”, HIZKUNTZ ESKUBIDEEN ALDEKO KANPAINA UDAL-HAUTESKUNDEETAN [2019]:** Datozen lau urteotako udal ordezkariak hautatuko diren hauteskundeen atarian, eta beraz hizkuntzarekiko etorkizuneko udal-politikak erabakiko dituzten korporazio berriak hautatuko diren honetan, hauteskundeetara hautagaitzak aurkeztu dituzten alderdi politiko guztiekin harreman bira egin du Kontseiluak; zer eta instituzioetan euskaldunon hizkuntz-eskubideak bermatuak izan daitezzen euren hauteskunde programetan konpromiso eraginkorrak hartzea proposatuz. Besteak beste, zinegotzi eta alkategai guztiak euskaraz jarduteko edo ulertzeko aldarrikapena mahai-gaineratuz, euskaradunok instituzioetan euskaraz bizi ahal izateko lege eta dekretuak betetzea eskatuz... Dinamika honen helburu nagusiak dira, orain arte ez bezala, alderdi politikoaren agendetan euskara ere sartzea, lau urteotan interpelazio dinamika ahalbidetzea (hartutako konpromisoen betetze-mailari jarraipena eginez), eta azkenik, herritarren aktibazioa sustatzea hizkuntz-eskubideen etengabeko urraketaren aurrean. Azken honetarako, harreman birarekin batera, kale aktibazio dinamika bat martxan jarri du Kontseiluak, bai eta sinadura bilketa bat ere.
- **KONTSEILUA INDARTZEKO BIDE-ORRIA[2019]:** Kontseiluaren ibilbidean, kide diren entitateen konpromisoa eta ekarpen aktiboa gora-beheratsua izan da, eta zentzu horretan, lehentasunezko jardun bezala zehaztu du Kontseiluak berreraketa baten beharra; euskararen normalizazio zeregin nagusi ez duten elkar-teen erosotasunez eta eraginkortasunez parte hartzeko elkarlan espazio honetan. Bide horretan, determinantea izango da zehaztu dugun irizpidea: “nork bere lan-esparru naturaletik egin ditzala ekarpen esanguratsua hizkuntzaren normalizazio prozesuan”. Hau da, kirol elkar-teen kirol esparruko jardura eta dinamika antolatzea, kultur taldeek kultur esparruan, sindikatuak sindikalgintzan... Kontseiluaren eta batez ere talde dinamizatzailearen lana dinamika eta jardura hauek erraztea izango da, baliabideak eta sostengua eskaintzea bide horretan.

3. Ahulguneak eta aukerak

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, beste elkarte eta proiektuek bezala, ahulgune asko ditu, bere jarduna behar bezala egitea eragozten diotenak. Ahulgune hauekin batera, noski, aukerak ere zabaltzen dira. Hauek dira nagusiak, edonola ere bata bestearen menpeko.

- **Giza-baliabide eta baliabide ekonomikoen falta nabaria.** Hizkuntzaren normalizazioa den erronka handi eta zailaren aurrean, herrigintzako subjektuen eta instituzio publikoen arteko sinergia eta elkarlanaren eragile eta dinamizatzaile izateko baliabide asko behar dira.



- Giza-baliabideen esparruan Kontseiluak lanaldi erdian aritzen den langile bakarra du, eta bazkide diren entitateen ordezkarien denbora ekarpena mugatua da, nor bere entitatearen helburuak eta lanak dituelako lehentasun.
- Zentzu horretan, plan estrategiko partekatu baten faltak dakar (beste eskualde askotan bezala), instituzioek euren irizpide edo intuizioen arabera inbertitzen dituztela baliabideak, modu atomizatuan eta autonomoan. Eta horrek, eraginkortasunari egiten dio kalte.
- Diru-irabazia duten enpresen kasuan bezala, Hizkuntzaren normalizazioan inbertitzen diren baliabideak, eta hauen eraginkortasuna zein “errentagarritasuna” mahai gainean jarri behar dira; funtzionatzen ez duten inbertsioak kendu eta berriak egiteko.
- Estimazio borobil bat eginda, gutxi gora behera milioi bat euro inbertitzen da eskualdean urtero hizkuntzaren normalizazio politiketan, baliabide horien inbertsioa ez dator bat bere errentagarritasunarekin.
- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak, bere izaera, helburu eta ezaugarritzeagatik, bide komun horretan aurrera egiteko ezinbesteko irizpideak biltzen ditu:
- Eskualdeko subjektua da. Udalerri ikuspegia gainditu, eta baliabideak eskualdearen esparruan optimizatzeko aukera ahalbidetzen du.
- Herrigintza eta instituzioen elkarlanerako espazioa da. Bi eragile multzo nagusien indarrak norabide berdinean jartzeko aukera eskaintzen du: bataren baliabide falta bestearen energia eta inplikazioarekin osatuz.
- Hizkuntzaren normalizazioan, eragileen, alderdien eta teknikarien arteko adostasun estrategiko bat erdiesteko subjektu egokia da.

B. Epe luzerako plan estrategiko partekatu baten falta. Ahulgune nagusia den tamaina berdinean da aukera handiena ere. Lan honetan behin eta berriro errepikatu dugun behar nabaria da, herrigintzako eragileen eta instituzio publikoen arteko elkarlanaren abiapuntu izan behar dena:

- Datozen 10 urteei begira, lege-agintaldiak, teknikari aldaketak, edo elkarteetako aktiboen aldaketaren gainetik egon den plan estrategiko adostu eta partekatua behar du eskualdeak.
- Eginkizun zail honetan enpresa mentalitatea behar da plan estrategiko honetan; zeintzuk dira “merkatu” aukerak, zeintzuk dira arriskuak, zeintzuk baliabideak, egin beharreko inbertsioak... eta batez ere, zein da emaitza; errentagarritasuna.



- Baliabide publikoen eta herrigintzako ekarpen boluntarioaren energia ahal beste optimizatu beharra dago, eta ematen diren urratsak positiboak eta emankorrak direla egiaztatu.

C. Euskalgintzak eragile sendoak behar ditu. Historiak erakutsi du, eta ez soilik euskalgintzaren esparruan, aldaketen motorra herrigintza eta herritarrak direla. Instituzioak, zorion edo zoritxarrez, baldintza, behar eta nahikeria berriei ahal bezain ondo erantzutera mugatu ohi dira. Aldaketak sustatzeko eta probokatzeko funtzio soziala herrigintzarena dela uste dugu Kontseiluan.

- Zentzu horretan, euskara elkarteen eta euskalgintzako bestelako eragileen osasuna zaintzea eta elikatzea ezinbestekoa dela uste dugu. Ahulguneak identifikatu, laguntza eta baliabideak eskaini...
- Euskalgintza sano bat izango da etorkizunean hizkuntz-politiketan aldaketak eragiteko ezinbesteko baldintzetako bat. Arduraz jokatu beharra dugu, hala herrigintzako eragileek, nola instituzio publikoek ere.

D. Euskalgintzaren paradigma berriak eta belaunaldi aldaketak: Jendartean aldaketa nabarmenak eman dira hizkuntzaren biziberritzeari ekin zitzaionetik, eta ematen du euskalgintzak ez dituela aldaketa horiek behar bezala aintzat hartu. Euskararekiko konpromisoa gero eta ahulagoa dela esaten duten diskurtso fatalistak nagusitu dira azkenaldian, ezagutza inoiz baino handiagoa den honetan erabilera seko gelditu dela... Paradigma berriak behar dira euskalgintzan ere; duela 40-50 urteko tresnekin eta mentalitatearekin ezin baitzaio egungo errealitateari erantzun. Zentzu horretan, eta orain arte esandakoei gehitzeko asmoz, iparrorratz izan daitezkeen intuizio batzuk mahai-gainen jarri nahiko genituzke, erantzun ziurak ez ditugunaren jakitun:

- Euskalgintzak behar du transbertsala izan. Euskara helburu nagusi ez duten entitateak eta elkarreak sustatu behar dira, garai berriei erantzun berriak emango dizkieten eragile sektorialak -edozein esparrutan-, zeintzuk osoki euskaraz egituratu eta biziko diren, euren esparruan lan egiteko, ez hizkuntzaren biziberritze zuzenean; berdin kirolaren esparruan, hezkuntza edo aisialdiarenean, ekonomiarenean, kulturarenean... Bizitzako esparru guztietan euskaraz bizi ahal izateko ekosistema berriak osatzea izango da erronka.

“Konpromisoa, gurekin hilko da”. Belaunaldi berriengan konfiantza izan behar da gure oinarria, aurrekoek asmatu zuten bezala, berriek ere bide berriak urratuko dituztenaren ziurtasuna dugu, baina abiapuntuak eta iparrorratzak desberdinak izango direnaren jakitun izan behar gara. Bizi ditugun garaietan, “konpromisoa”, are hizkuntzarekiko konpromisoa, “demodé” dago, eta egongo da, belaunaldi berriek ez dute horretarako arrazoirik. Hizkuntzarekiko atxikimendua eta pertenezia sustatzeko bide berriak behar dira; hizkuntzak ekarri behar ditu balio eta zeruertz berriak, erdarek ekartzen ez dituztenak, euskaraz egiten diren jarduerak eta produktuak erakargarriak behar dute izan, bizi-garriak, bizipoz emaileak. Paradigma berriak beharrezko dira.



4. Azken hitza

Prozesu pertsonala eta kolektiboa den euskararen normalizazioan sortzen diren erronka eta korapilo berrien aurrean estrategia eta erantzun berriak behar ditugu. Eta honetan belaunaldi berrien lana eta ekarpena sartzen da bete behar. Esperientziak esaten digu konfiantza izan behar dugula etorkizunean, eta belaunaldi berriengan.

“Euskaingintzako energiaren kontserbazio legea”k adierazten duen moduan eta Fisikako energiaren kontserbazio legeari jarraituz, sistema isolatu batean energia-mota guztien baturak konstante dirau; horren arabera, energia ez da sortzen ez deuseztatzen, transformatu egiten da.

Gurera ekarrita, beraz, betidanik Euskaingintzan egon den energia ez da deuseztatu (diskurtso fatalista askok adierazten duten moduan), eraldatu baizik. Gure lana da tresna egokiak sortzea energia hori berriz transformatu eta normalizazio prozesuaren alde jartzeko. Langintza horretan; garai, baldintza, testuinguru eta motibazio berriei erantzun egokiak ematea berebiziko da, eta nola ez, ELKARLANA ezinbesteko tresna da eta izango da, izan elkarlan hau instituzio eta herrigintzaren artekoa, instituzioen artekoa, herrigintzako elkarteen artekoa...